**PROTOKOLOA, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA EIBARKO UDALAREN ARTEKOA, EIBARKO UDALERRIAN DAUDEN JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAN DIREN IBAI-IBILGU ETA ERTZETAN ELKARLANEAN ARITZEKO.**

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 08a

## BILDU DIRA

Batetik, Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia den aldetik, eta Miguel de los Toyos Nazabal jauna Eibarko Udaleko alkatea-udalburua.

## ESKU HARTU DUTE

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dizkion eskumenak betez.

Bigarrenak, udalaren legezko ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak Udala ordazkatzeko ematen dion lege-ahalmena betez.

Bi aldeek PROTOKOLO hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta, horretarako

## HONAKOA AZALTZEN DUTE

**LEHENENGOA.-** Ekainaren 26ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumen-gaietako eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, eta lege horren arabera, Euskadin uraren inguruko politika gauzatzea du xede agentzia horrek. Horri dagokio, besteak beste, jabari publiko hidraulikoa babesteko egin beharrekoak egitea edota Estatuko Administrazioak eskualdatutako, eskuordetzan emandako edo Agentziaren esku utzitako funtzioak

**PROTOCOLO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR PARA INTERVENIR CONJUNTAMENTE EN LOS CAUCES Y MÁRGENES DEL DOMINIO PÚBLICO HIDRÁULICO SITUADO EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE EIBAR**

Vitoria-Gasteiz, 08 de noviembre de 2018

## SE REUNEN

Sr. D. Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Miguel de los Toyos Nazabal Alcalde del Ayuntamiento de Eibar.

## INTERVIENEN

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Las personas intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente PROTOCOLO, y a tal efecto

## EXPONEN

**PRIMERO.-** Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho Privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, intervenciones para la protección del dominio público hidráulico, así como el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

gauzatzea.

Halaber, berari dagokio arloko eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta, jabari publiko hidraulikoaren babes eta kontserbazioa bermatzea.

Le compete igualmente garantizar, en coordinación con las administraciones con competencias en la materia, la protección y conservación del dominio público hidráulico.

**BIGARRENA.-** Oro har, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluaren arabera, udalerriak berariazko eskumenen artean ditu, besteak beste,hiri-ingurumenaren kudeaketa eta espresuki, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta herri-osasungarritasunaren babesa.

**SEGUNDO.-** Con carácter general, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, al municipio le corresponde ejercer, en todo caso, como competencias propias -entre otras- en las materias de medio ambiente urbano y, en particular, gestión de los residuos sólidos urbanos y protección de la salubridad pública.

26. artikuluak xedatzen du udalerri orok hondakinen bilketarako lanak egin behar dituela.

El artículo 26 concreta que todos los municipios deberán prestar el servicio de recogida de residuos.

Halaber, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluak honako hauek jasotzen ditu udalerrien eskumen propioen artean:

Así mismo, la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en su artículo 17, recoge, entre las competencias propias de los municipos, las relativas a:

- Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea.

- Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.

- Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.

- Ordenación complementaria, promoción, gestión, defensa y protección del medio ambiente y desarrollo sostenible.

- Promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública.

- Ordenación, gestión, prestación y control de los servicios de recogida y tratamiento de residuos sólidos urbanos o municipales, así como planificación, programación y disciplina de la reducción de la producción de residuos urbanos o municipales.

**HIRUGARRENA.**- Beste alde batetik, Plan Hidrologiko Nazionala arautzen duen uztailaren 5eko 10/2001 Legearen 28.4 artikuluak xedatzen duenaren arabera, lurralde antolakuntza eta hirigintzan eskumenak dituzten Administrazioei dagozkie hiri-eremuetako ibai-ibilguetan egin beharreko lanak egitea. Betiere, kontuan hartuta administrazio hidraulikoak jabari publiko hidraulikoaren kudeaketan dituen eskumenak.

**TERCERO.-** Por su parte el artículo 28.4 del Plan Hidrológico Nacional, aprobado por Ley 10/2001, de 5 de julio, establece que las actuaciones en cauces públicos situados en zonas urbanas corresponderán a las Administraciones competentes en materia de ordenación del territorio y urbanismo, sin perjuicio de las competencias de la Administración hidráulica sobre el dominio público hidráulico.

Orobat, ekintza horiek finantzatzeko, ezartzen du Autonomia Erkidegoko administrazioen eta Toki-administrazioen artean badela hitzarmenak sinatzeko

De la misma manera establece que se podrán suscribir convenios para la financiación de estas actuaciones entre las Administraciones Autonómicas y Locales.

aukera.

**LAUGARRENA.-** Gainera, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren (Jabari Publiko Hidraulikoaren araudia onartu duenaren) 126 ter artikuluaren 6. zenbakiaren bidez jabari publiko hidraulikoan azpiegiturak dituzten titularrei eskatzen zaie azpiegitura husteko ahalmena mantentzeko behar diren kontserbazio-lanak egin behar dituztela.

**CUARTO.-** Además, el apartado 6 del artículo 126 ter del Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Dominio Público Hidráulico, exige a los titulares de infraestructuras sobre el dominio público hidráulico realizar las labores de conservación necesarias que garanticen el mantenimiento de la capacidad de desagüe de la misma.

**BOSGARRENA.-** Uraren Euskal Agentziak egun kontratatuta du Ibai-Ibilguak Mantentzeko eta Leheneratzeko Zerbitzua. Zerbitzu horrek honako hauek ditu xede: alde batetik, ibai-ekosistemaren ingurumen hobekuntza eta, bestetik, gaitasun hidraulikoa hobetzeko lanak egitea, horiek lehentasunezkoak direla uste den lekuetan.

**QUINTO.-** Que la Agencia tiene contratado actualmente un Servicio de Mantenimiento y Recuperación de Cauces, mediante el que se llevan a cabo actuaciones de mejora ambiental del ecosistema fluvial y de mejora de la capacidad hidráulica, en aquellas zonas donde dichas actuaciones se consideren prioritarias.

**SEIGARRENA.-**, Uraren Euskal Agentziak, Ibilguak Mantentzeko eta Leheneratzeko Zerbitzua Eibarko Udalaren eskura jartzen du honako helburu hauekin: ibilguen ingurumena hobetu eta mantentzeko lanak egitea, eta,aldi berean, udalerria zeharkatzen duten ibai-tarteetan, gaitasun hidraulikoa ahalmena bermatzeko lanak egitea.

**SEXTO.-** Que en relación con el municipio de Eibar la Agencia Vasca del Agua ofrece su Servicio de Mantenimiento y Recuperación de Cauces para llevar a cabo las labores de conservación y mejora medioambiental, así como las relativas al mantenimiento de la capacidad hidráulica de los tramos urbanos del río o ríos que atraviesan el territorio del municipio.

Era berean, Uraren Euskal Agentziak konpromisoa hartzen du udalari beharrezko baimenak izapidetzeko, jabari publikoan lanak egin eta hiri-hondakin solidoak edo baliokideak ken ditzan edota ingurumena hobetze aldera bestelako ekintzak egin ditzan.

Asimismo, la Agencia Vasca del Agua se compromete a la tramitación de la pertinente autorización al Ayuntamiento para la acometida de obras y actuaciones en dominio público de retirada de residuos sólidos urbanos y equivalentes u otras actuaciones de mejora ambiental que quieran ser promovidas.

**ZAZPIGARRENA.-** Eibarko Udalak eskura jartzen du hiri-hondakin solidoak biltzeko duen zerbitzua, udalerria zeharkatzen duten ibaietan, ibai-tartean sartu eta hiri-hondakin solidoak edo baliokideak kendu ahal izateko, edota udaletxetik sustatu nahi diren ingurumen hobekuntzarako beste edozein ekimen egin ahal izateko, betiere ibai-ekosistemaren sustapenarekin, mantentzearekin, lehengoratzearekin eta hobekuntzarekin lotuta daudenak.

**SÉPTIMO.-** Que, por su parte el Ayuntamiento de Eibar ofrece su servicio de recogida de residuos sólidos urbanos con el que acceder a los tramos del río o de los ríos que atraviesan el territorio del municipo para la retirada de los residuos sólidos urbanos o equivalentes, así como para la acometida de cualesquiera otras actuaciones de mejora ambiental que quieran ser promovidas desde el municipio y estén relacionadas con la promoción, la conservación, restauración o mejora del ecosistema fluvial.

**ZORTZIGARRENA.** Azaldutako guztiagatik, bi erakundeen onerako da protokolo bat sinatzea, esparru honetan bakoitzari

**OCTAVO.-** Que por todo ello es interés de las partes suscribir un protocolo que establezca el reparto de funciones explicitado, así como la

dagozkion eginbeharrak zehazten dituena, eta, baita protokoloaren jarraipena egiteko batzordea osatzea ere. Batzorde hori, bi erakundeetako ordezkariek osatuko dute, eta xede izango du udalerria zeharkatzen duen ibai-tarteetan ibilguetako lanak planifikatu, koordinatu, ebaluatu eta erraztea; bai ibai-ekosistemen ingurumena mantentzeko, lehengoratzeko eta hobetzeko lanak egiteko, bai ur-hustuketarako ahalmena bermatzekoak egiteko.

creación de una comisión de seguimiento del protocolo compuesta por representantes de ambas instituciones con el objeto de planificar, coordinar, evaluar y agilizar las tareas relacionadas con la conservación, restauración y mejora ambiental del ecosistema fluvial y el mantenimiento de la capacidad hidráulica de los cauces en los tramos de los ríos que cruzan el territorio del municipio.

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

### LEHENENGOA.- PROTOKOLOAREN HELBURUA

Protokolo honen helburua da, Uraren Euskal Agentziak eta Eibarko Udalak hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea, Ekintza Plan bat adostu eta bi erakundeek Eibarko udalerrian dauden jabari publiko hidraulikoko ibai-ibilgu eta ertzetan egin beharreko lanetan eraginkorragoak izateko. Protokolo honen esparruan jasotako lanek neurriak hartu beharko dituzte ertzetako eta ibaiertzeko landaredian kalteak ekiditeko eta, orokorrean, ibai-ekosistema eta bere biodibertsitatea babesteko.

### PRIMERA.- OBJETO DEL PROTOCOLO

El presente Protocolo tiene por objeto regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Eibar se comprometen a colaborar para dotarse de un Plan de Actuaciones con el fin de optimizar las intervenciones a realizar en los cauces y márgenes del dominio público hidráulico situado en el término municipal de Eibar. Las actuaciones recogidas en el marco de este protocolo deberán contemplar medidas para evitar afecciones sobre la vegetación de márgenes y riberas y, en general, para proteger el ecosistema fluvial y su biodiversidad.

### BIGARRENA.- EKINTZA-PLANA

Ekintza-plana zehazteko honako pausu hauek jarraituko dira:

a) Erakunde bakoitzak, aldez aurretik, udalerriko ibai-bilgu eta ertzetan egiteko ekintzen plangintza bat egingo du

Plangintza horretan sartuko diren ekintza zehatzak aukeratzeko orduan, honako hauek izango dira kontutan: alde batetik, oro har, Uraren Euskal Agentziak lehenetsiko ditu ingurumen urtarra hobetzeko eta ur-hustuketarako ahalmena mantentzeko lanak. Bestetik, Udalak honako ekintza mota hauei emango die lehentasuna: hondakin-bilketari, ur hustuketarako ahalmena bermatzeari jabari

### SEGUNDA.- PLAN DE ACTUACIONES

La manera de proceder para la elaboración del Plan de Actuaciones será la siguiente:

a) En primer lugar cada una de las partes firmantes realizará una planificación de actuaciones a realizar en los cauces y márgenes del municipio.

Para la inclusión de actuaciones en dicha planificación se atenderá a que, con carácter general, la Agencia realizará actuaciones de recuperación ambiental y de mantenimiento de la capacidad hidráulica, y el Ayuntamiento de retirada de residuos, mantenimiento de la capacidad hidráulica en infraestructuras municipales con incidencia en el dominio público hidraúlico, y mantenimiento de las infraestructuras municipales.

publiko hidraulikoan eragina duten udal-azpiegituretan; eta udal-azpiegituren egoera ona mantentzeko lanei.

Era berean, urteko plangintza horretan, sartuko dira, boluntariotzako jarduerak edota sentiberatze programen bidez egindako ibilgu eta ertzak mantentzeko eta leheneratzeko ekintzak.

En esta planificación anual se incluirán las actuaciones de voluntariado, sensibilización, etc. que tengan relación con la conservación y recuperación de cauces y márgenes.

b) Urte amaieran, erakundeek bere plangintza elkarri erakutsiko diete, honako hauek betetzeko:

- Beste administrazioaren plangintzari ekarpenak egiteko.
- Proposaturiko ekintzen artean garrantzitzuenak lehenesteko.
- Lan zehatzak egin aldera, izan litekeen lankidetza adosteko.

b) A finales de cada año las partes pondrán en común dichas planificaciones, con el fin de:

- Realizar nuevas propuestas a la planificación de la otra Administración.
- Establecer las prioridades respecto a las actuaciones propuestas.
- Establecer las posibles colaboraciones en los trabajos a realizar.

c) Urtean zehar, Agentziak eta Eibarko Udalak elkar informatuko dute udalerrian egingo dituzten ekintza zehatzei buruz, lan-programa komun bat zehazteko.

c) A lo largo del año la Agencia y el Ayuntamiento de Eibar se informarán de las actuaciones que pretenden realizar en el municipio con la voluntad de acordar un calendario común.

## HIRUGARRENA.- ERAKUNDE BAKOITZAREN BESTELAKO KONPROMISOAK

Ekintza-plana adostu ondoren, bi erakundeek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

1.- Uraren Euskal Agentziak, honako hau: ahal den neurrian, baimen bakarrean izapidetzea jabari publiko hidraulikoan edota zortasun-eremuetan udalak aldizka egin beharreko lan guztiak.

2.-Eibarko Udalak, honako hau: ahal dela izapide bakar batez baimena eman Agentziari, hark egin beharreko lan guztiei onespena emateko, aldizka egin beharrekoak badira.

## TERCERA.- OTROS COMPROMISOS DE LAS PARTES

Una vez acordado el Plan de Actuaciones de ambas administraciones éstas se comprometen a:

1.- La Agencia Vasca del Agua a tramitar, si es posible en una única autorización, todas las actuaciones en el dominio público hidráulico o zonas de servidumbre que se vayan a realizar de forma periódica.

2.- El ayuntamiento de Eibar por su parte, a tramitar, a ser posible en una única licencia, las licencias que requieran las actuaciones a ejecutar por parte de la Agencia cuando éstas se vayan a realizar de forma periódica.

3.- Erakunde bakoitzak bere gain hartuko ditu adostutako ekintzen kostuak, erakunde bakoitzaren aurrekontu baliabideen arabera.

3.- Asumir, en la medida de sus disponibilidades presupuestarias los costes económicos que supongan las actuaciones acordadas.

## LAUGARRENA.- HITZARMENEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA

1.- Protokolo honen jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkarik osatuko dute: bi Uraren Euskal Agentziakoak izango dira eta beste bi Eibar ko Udalekoak. Protokoloa sinatzen duen alde bakoitzak izendatuko ditu bere ordezkariak, honako eginkizun hauetarako:

a) Administrazio bakoitzak egindako ibai-mantentze lan zehatzen inguruan informazioa eman, eta, aldi berean, udalerrian egiteko dituen lan-aurreikuspenen inguruan jakinaren gainean jarri.

b) Plangintza proposamenetan beste administrazioaren ekarpenak jaso, proposaturiko ekintzen artean lehentasunak zeintzuk diren adostu edota lanok egiterako orduan elkarrekiko lankidetza zehaztu.

c) Mantentze lanak koordinatu: baliabideak zuhur erabili eta ibaietan garatzekoak diren lanen eraginkortasuna handitzeko.

d) Elkarrekin adostutako urteko ekintza programa idatzi: bi erakundeen arteko lan banaketa zehazte aldera.

e) Datozen urteetara begira, gutxienez urtean behin, urtean zehar egin beharrekoen ekintza-programa proposatu, eta administrazio bakoitzaren lanak zeintzuk diren zehaztu.

f) Zehaztu aurretiko urtean zehar elkarlanean jada aurrera eramandako mantentze lanen berri emateko era.

## CUARTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL PROTOCOLO

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente Protocolo compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos del Ayuntamiento de Eibar, que se designarán, respectivamente, por las partes firmantes del presente protocolo, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Informar sobre las tareas concretas de mantenimiento de cauces realizadas, así como las previsiones existentes al respecto en el municipio por parte de cada administración firmante.

b) Recabar propuestas de la planificación de la otra Administración, establecer prioridades respecto a las actuaciones propuestas y/o concretar específicamente la asistencia mutua en los trabajos a realizar.

c) Coordinar las labores de mantenimiento de cauces para la optimización de recursos y el incremento de la eficacia de las labores desarrolladas en el cauce de que se trate.

d) Redactar un programa anual de actuaciones concertado donde se establecerá el reparto de tareas a acometer entre ambas administraciones.

e) En los años sucesivos, proponer —con carácter anual— el programa de actuaciones concertado a desarrollar en cada ejercicio, estableciendo el reparto de tareas entre ambas administraciones.

f) Acordar un hito comunicativo al año que dé cuenta de las labores de mantenimiento de cauces llevadas a cabo coordinadamente en el municipio.

g) Adostasun-irtenbideak bilatu; baita Protokoloaren aldaketari legozkionak ere.

h) Protokolo honek aurreikusi edota zehaztu ez dituen arazoak konpondu; baita protokoloaren interpretazio edota betearazteari legozkionak ere.

i) Protokolo honen edukiaren moldaketa edota iraungipena proposatu.

g) Buscar soluciones de consenso, incluidas las posibles modificaciones del presente Protocolo.

h) Resolver todas las cuestiones y problemas no resueltos o no previstos específicamente en el presente Protocolo así como las relativas a la interpretación y ejecución del mismo.

i) Proponerla extinción y/o modificación del presente Protocolo.

2.- Protokoloa indarrean dagoen bitartean, eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea bildu egingo da behintzat urtean behin eta behar den aldi guztietan jardunak ondo joan daitezen. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

3.- Hitzarmenean jarraipen batzordeari buruz berariaz ezarrita ez dagoen guztietan kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da (Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluko 3. zenbakian arautzen dena).

2.- Durante la vigencia del Protocolo y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá al menos una vez al año, y siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

## BOSGARRENA.- PROTOKOLOAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA

1.- Protokoloak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta protokoloaren ondorio diren konpromisoengatiko erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2.- Protokoloak sinatzen den momentutik izango ditu ondorioak, eta sinatzen den unetik behartuko ditu parte hartzaileak. Ordutik kontatzen hasita, protokoloak lau urteko iraupena izango du, nahiz eta parte-hartzaileek protokoloarean edozein momentutan adostu dezaketen beste lau urtetarako luzapena.

Hitzarmenari uko egiten bazaio, beste aldeari idatziz jakinaraziko zaio, gutxienez protokoloa iraungi baino bi hilabete

## QUINTA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL PROTOCOLO

1.- El protocolo no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El protocolo surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma, teniendo una duración inicial de cuatro años desde dicho momento, sin perjuicio de que antes del transcurso de dicho plazo ambas partes acuerden su prórroga por un periodo de tiempo de hasta cuatro años adicionales.

En caso de renuncia, se deberá notificar por escrito a la otra parte firmante la misma con un plazo mínimo de antelación de dos meses

lehenago.

a la fecha de extinción de la vigencia del protocolo.

**SEIGARRENA.-**
**PROTOKOLOA IRAUNGITZEA**

Protokoloa aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute protokoloa bina aletan.

**SEXTA.-**
**EXTINCION DEL PROTOCOLO**

El protocolo se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**ERNESTO MARTINEZ DE CABREDO ARRIETA**

**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA**
**DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

**MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL**

**EIBARKO ALKATE UDALBURUA**
**ALCALDE/ALCALDESA-PRESIDENTE/PRESIDENTA DE EIBAR**